

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua ondo funtziona dezan hiru funtsezko jarduera daude; ekoizpena, arazoak konpontzea eta plataforma edo sareko jarduerak. Baina gure ustez, hiru hauek baino jarduera garrantzitsu gehiago daude.

Lehenik eta behin antolaketa on bat egin behar dugu. Oso garrantzitsua da produktu erakargarri eta erabilgarri bat diseinatu eta sortzea. Beraz, hori izango litzateke lehenengo pauso nagusia. Diseinu egoki eta antolamendu aproposa izan dezan, lana ingenieritza baten esku utziko dugu. Beste era batera esanda, ingenieritza enpresa bat kontratatuko dugu produktua diseinatzeko eta sortzen laguntzeko, emaitza hobetoak eta eraginkorragoak lortzeko helburuarekin.

Gero, produktua ekoitzi eta banatu behar dugu. Gehiegizko produkzioa edo gainprodukzioa ekiditzeko hiriekin harremanetan jartzea egokiena dela uste dugu. Beraz, ekoizterako orduan kontuan hartuko dugu hiri bakoitzean behar diren makina kopurua. Banaketaz DHL edo SEUR bezalako enpresak arduratuko dira. Banaketan espezializatuta dauden enpresak direnez, banaketa modu hobeekin batean egingo dute.



Gainera, publizitate on bat egitea da funtsezko jarduerarik garrantzitsuenetarikoa. Esan bezala, gure produktuaren helburua gizartean dagoen arazo bat konpontzea da. Zigarro-punten arazoa konpontzea eta ingurumenean sortzen duen kutsadura murriztea eta ahal bada bukatzea. Arazo honen inguruan jendea kontzientziatu behar dugu eta ingurumena lagundu dezaketela jakinarazi. Horregatik egin behar dugu publizitate ona, gure produktua arrakastatsua izan dezan. Publizitatea sare sozialetan egitea da egokiena merkeagoa delako eta gainera jende gehiagora ailegatuko da. Tiktok, Instagram, Facebook, Youtube... Ahal ditugun sare guztietan inpaktu handiagoa edukitzeko.



Azkenik, arazoak konpontzeko gai izan behar gara. Gure produktuaren garapenaren prozesu osoan arazoak sortuko baitira; diseinua sortzean, ekoizpenean, banaketan... Arazoak sortzekotan ezin gara horretan blokeatu, baizik eta konponbideak bilatu behar ditugu aurrera jarraitzeko.